

## EUSKARARI BURUZKO IKERKETAK GAUR EGUN

Jean HARITSCHELHAR

Euskarari buruzko ikerketen aztertzea da gibel alderat soako edo begirapen baten emaitza, ikerketaren ibilaldi luzearen ikustea ez bakarrik Euskal Herrian, baina ere mundu zabalean. Alabainan, aspaldian ohartu ziren mundu guziko linguista edo mintzaikari jakintsunak Euskara zela mintzaira berezi bat eta kuriostatez lehenik, harrituak gero, ikertu dituzte Euskarak dituen berezitasunak. Aipa ditzagun bakarrik Guillaume de Humboldt, Louis Lucien Bonaparte printzea, Van Eys, Julien Vinson eta Schuchardt-en lanak eta juja dezakegu berehala zer ekarri dieten euskal estudioeri. Bertze atzerriar ikerle batzu agertzen dira XX garren mendean eta Euskaltzain buru den Aita Villasanteren ondotik nahi dautzuet erakutsi egun hemen Gernikan bilduak ziretneri neure poza eta atsegina Euskarari emaiten diozuen atxikimendua eta artaren gatik. Zuen baimenarekin nahi nuke ukan orhoitzapen berezi bat enetzat maisu eta adixikide min izan den René Lafon jaunarentzat. Ez dezaket ahanz gidatu dituela neure lehen urratsak euskal ikerketetan bere betiko ongi nahiarekin.

Nere egungo gaia gai zabala da, zabalegia eta gaingiroki bakarrik agert dezaket zer bide berriak urratu dituzten ikertzaileek azken berrogoita hamar urte hauetan.

### Hiztegiaren inguruan

Akademia baten lehen lana beti izan da hiztegi baten agertaraztea. Ez da gauza errexer behar baitira aintzinetikako lan batzu egin, hala nola idazle zahar eta oraikoei enplegatutuzten hitzak bildu eta bai ere egun guziz euskaldunek aho mihitan derabiltzatenak. Azkueren eta haren *Diccionario vasco español francés* (1905-1906) aren ondotik — hau izan baita euskal hiztegiaren maila premiatsu bat — behar da aipatu *Dictionnaire basque français* delakoa (1926-1938) Aita Lhandek hasia eta Lafitte eta Aranartek bururatu, Lapurdi Baxenabar eta Ziberoko mintzaireri buruz egina. Garai hartan Jean Larras-

quet -ek agertarazten zuen *Le Basque de la Basse Soule Orientale* (1939), interesgarria guretzat emaiten baitauzku Barkoxen erabiltzen diren hitzak bere azentuaz horniturik. Euskalkieri buruz eginak, aipatu behar ditugu ere Emiliano Arriagaren *Lexicón Bilbaino* (1960) Mitxelena osatua, Gorosqueta eta Alfonso Irigoyen-en *Vocabulario de Baztán* (Euskera 1962) Gerardo López de Gereñu-ren *Voces alavesas* (Bilbao 1958) Kandido Izagirre-ren *Tolosako euskeraren iztegirako gaiak* (BRVAP 1967) Toribio Etxebarria-ren *Lexicón del euskara dialectal de Eibar* (Euskera 1965-1966) eta ere *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes* (Donostia 1970).

Bainan Larramendi-ren hiztegia baino lehen baziren eskuz idatzitako hiztegiak lo daudenak liburutegi batzuetan. Mitxelena eta Agud-i esker Landucci-ren *Dictionnarum Linguae Cantabrigiae* (1562) agertu da 1958-an Anuario del Seminario Julio de Urquijo deitu aldizkarian. Bere *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* hortan (Bilbao 1970) Luis Mitxelena erran ditu zer ziren hiztegi baten ekai, iturburu, lege eta mugak eta bide nabar agertarazten zituen Larramendi eta Araquistain-en osagaiak.

Bilbaon 1977-an agertu den *Diccionario Retana de Autoridades de la lengua* da Azkue-ren hiztegiaren osatze bat, Manu de la Sota, Aita Akesolo eta Lafittek egina: mail on bat beste hiztegi osatuago bati buruz.

Azken urte hauetan hiztegi estudioetan lan berri batzuk laguntza haundi bat ekartzen dute: horiek dira idazleen hiztegiak. Hala nola Juan Gorostiaga «*Vocabulario de refranero vizcaíno de 1596* (Salamanca 1953), *Léxico empleado por Leizarraga de Briscous* Gabriel Aresti-ren obra (FLV 1973) zorigaitzez ez baitu agertzen non edo zoin zatitan dauden hitzak; goraiatu behar dira Aita Villasanteren *Axularren Hiztegia: euskara, Español, Francés* (Oñate 1973) eta Patxi Altuna-ren *Etxepareren hiztegia* (Bilbao 1979) lan nagusiak, oinarri paregabekoak egiazko Diccionario de Autoridades batentzat.

Ez dezagun ahantz Placido Mujica-ren *Diccionario castellano - vasco* et ez eta ere Tournier eta Lafittek eginikako *Lexique français - basque*, euskararen ezagutzeko tresna on direnak.

Agiantzatzen dugu burura dezan Luis Mitxelena aspaldian hasia duen hiztegi etimologikoa eta publika dezan Ibon Sarasolak bere *Euskal hiztegi arauemailea*, hau izanen baita euskarazko lehen hiztegia. Ederki hasia du bere saila; segi beza denen probetxutan.

Semantikaz arduratu diren ikertzaile guti daukagu. Goenagak ikertu du «gogo» hitza Dexteparen gan, errefracuetan, Leizarraga, Axular, Oihenart eta Tartasen obretan. Mitxelena ere agertarazi ditu zombait artikululu. Txomin Peillen tesis doctoral baten preparatzen ari da; deitzen da: *Lexique basque de l'anatomie. De la langue écrite à la langue parlée. Morphologie et sémantique*.

Baditugu aldiz etimologiazaleak: Gavel lehenik, Lafon bere *Notes etymologiques* (E. J. 1949 eta 1950), Karl Bouđa *Etymologies basques* (E. J. 1950 eta 1951) Joan Corominas bere hain ohargarri den *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* deritzanarekin, baliosa euskaltzale guzientzat. Noiztenka

sartzen da familiako hiztegian hala nola *Hurgando en los nombres de parentesco* (F. L. V. 1970). Hil baino lehen Ulhenbeck-ek argitu zituen *Les couches anciennes du vocabulaire basque* (E. J. 1947). Zer lana ikertzaileentzat, Mitxelena bere lanetan aipatzen dituen etimologia guzien biltzeko! Zorionez ikasle gazte batek, Juan José Arbelaz-ek eman dauzku *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena* (Tolosa 1978).

### Onomastikaz

Fontes Linguae Vasconum aldizkariaren sortzeak Iruñian oldar bat eman die Nafarroako toponimiaz eginikako ikertzeri. Eman ditzagun zonbeit izen : Diego Pascual de Eraso, *Toponimia vasca en Corella* (FLV 1969) J. M. Jimeno Jurío, *El euskera en la toponimia de Artajona* (FLV 1969), *El libro rubro de Iranzu* (Príncipe de Viana, 1970) Francisco Oroz Arizcuren, *Toponimia menor de la Cuenca* (FLV 1971) Benito Urtásun Villanueva, (*Toponimia de Oroz Betelu*) (FLV 1971) Lapuente Martínez, *Toponimia aezcoana* (FLV 1975).

Halaz ere Nafarroako bi izen handienak dira José María Lacarra eta Ricardo Ciérvide. Lehena kondaira idazlea izana gatik agertu zuen aspaldian *Onomástica vasca de siglo XIII* (RIEV 1930) eta emaiten dauzku ekei baliagarriak *Vasconia medieval. Historia y Filosofía* liburuan bai ta ere *Documento de Iráche referente a Cirauqui* deitu artikuluan (FLV 1974). Ricardo Ciervidek idatzi du tesis doktoral bat : *El romance navarro antiguo. Onomástica medieval navarra* (siglos X al XV) irakurtu ahal ez dudana, baina bilduma agertu dena FLV 1970ean. Osatzen du Nafarroako onomastika bere *Toponimia del Becerro antiguo de Leyre* FLV aldizkarian idatzia bost artikulua mamitsuetan (FLV, 1976-1977-1978).

Nafarroatik aparte beste eskualdetako onomastikaz arduratu dira Gerardo López de Gereñu, *Toponimia alavesa* (Anuario de Eusko folklore 1958) eta Alfonso Irigoyen, *Formas de nombres de localidades vizcainas* (FLV 1972) eta Eugene Goyhenetche-k presentatu zuen 1966-an tesis doktoral bat Bordelen: *Onomastique du Nord du Pays Basque au Moyen-Age* baina zoritxarrez ez da sekulan agertu. Berrikitan, Bulletin du Musée Basque aldizkarian *La Basse - Navarre en 1350* deitu sei artikuluetan J. B. Orpustan-ek aipatzen ditu orduko Baxenabarreko etxeak. Lantzen ari den tesis doktoral-ean emanen dauzku bere ikertzen ondorioak.

Aipagarriak dira ere beste ikertzaile batzuek hala nola Isaac López Mendizabal eta Justo Gárate. Rene Lafon-ek aztertu ditu Aquitania zaharreko izenak latinezko idazkietan agertuak Auch-eko alderdian, Rhodfs-i segituz Dordogne departamenduan *os* edo *osse* atzizkiez bururatzen diren toki izenak, Andaluzian euskal kutsua daukaten toki izenak, eta zabaltzen zituen bere xedeak *Projet d'un lexique explicatif des noms aquitains et vascons de personnes, de divinités, de localités, et de populations* deitu artikuluekin. (Amsterdameko Onomastikako biltzarrean 1963).

*Apellidos vascos* liburuan (Donostia 1955 eta berrikitan biragertua) Luis Mitxelena bihi eta bazka nasaiki emaiten dauku. Bere ikerbideak agertuz eskaintzen dauku ere bibliografia ugari bat. Bide bera segituz huna geroztik *Introducción fonética a la onomástica vasca* (Emerita 1957); *El genitivo en la onomástica medieval* (Emerita 1971), *Notas lingüísticas a Colección diplomática de Irache* (FLV 1969), *Toponimia, léxico y gramática* (FLV 1971) *Onomástica y población de San Millán* (XII Semana de Estudios medievales, 1974). Orotarat, obra premiatsu bat Mitxelena dituen kalitatez landua, beti xuxen, zehatz eta zuhur.

### Euskalkien alorrean

Euskalkien azterketa seriosa hasi zen joan den mendean Luis Luciano Bonaparte printzearekin. Beste asko arizan dira geroztik. Azkuek erakutsi dauku Erronkariko euskalkiaren berezitasunak: *Las particularidades del dialecto roncalés* (Bilbao 1932) eta euskalki berari buruz arizan dira Beloqui, Elosegui, Sansinena de Elosegui eta Mitxelena *Contribución al conocimiento del dialecto roncalés* (BRSVAP 1953). Aezkeraz ohartu da Azkue: *Aezkera edo Petriberro inguruetako mintzaera*. (Bilbao 1928). Larrasquetek, Barkoxarra sortzez, eman dauku xehetasun zonbeit Barkoxeko mintzairaz. *Le Basque souletin Nord Oriental* (París 1934) baliosa baina ex beti irakur errexa.

Lafonen gai bat izan da ere *La place de l'Aezcoan, du Salazarais et du Roncalais dans la classification des dialectes basques* (Pirineos 1955) Yrizar-ek *Formación y desarrollo del verbo auxiliar* artikuluetan (BRSVAP 1947 eta 1948) eskaintzen ditu euskalkien mapak eta euskalki bakoitzak dituen mintzatzailen konduak ateratzen ditu *Los dialectos y variedades de la lengua vasca, estudio lingüístico demográfico* (BRSVAP, 1973) euskararen atzeratzea markatzen duen artikuluan. Gauza berbera egin zuen Naparroarentzat J. M. Sánchez Carrión-ek: *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra* (1970), *factores de regresión, relaciones de bilingüismo* (Iruña 1972). *Sobre el pasado de la lengua vasca-ko* (Donostia 1964) zati batzutan Luis Mitxelena euskalkiak aztertuz egin diraizken estudio eta ikerketak erakusten ditu.

Jacques Allières-ek jadanik eginak ziren eta liburutegi batzutan lo zauden inkestak publikatu ditu hala nola *Le Petit Atlas linguistique basque français Sacaze* (Vía Domitia 1960-1961) eta *Le Petit Atlas Linguistique basque français Bourciez* (FLV 1977).

Atlas linguistiko baten egiten hasiak gara Ipar Euskal Herrian Frantziako C. N. R. S. delakoaren menpean. Berrogoita hamar toki hautaturik Lafonen proposamenduak hartuz, Allières eta Haritschelhar gidari, lehenbiziko inkestak egin dira 300 galderen bitartez, bainan inkesta egile eskasez debaldetan utzi da oraingoz. Bere aldetik Ana María Etxaidek proposatu dio Euskaltzaindiari Azkuek utzi dituen notak baliatuz, *Erizkizundi irukoitzaren agertaraztea*. Dirudienez Euskaltzaindiak nahi litzuke bultzatu behar diren azterketak euskalkieri buruz denbora guti barne:

Atlas linguistikoa bide bat balinbada euskalkien ongi ezagutzeko, beste bide berri bat urratu da berrikitan. Euskalki edo tokiko mintzairak nola eginak diren estrukturalismoaren printzipioak baliatuz, huna zer galdatzen zuen Andre Martinet-ek tokian eginik inkesta sakon bati esker, mintzairaren «corpus» delako bat bilduz.

Haren ikasle izana baten lana hor dago agerturik Geneviève N'Diaye, *Structure du dialecte basque de Maya* (La Haye - Paris, 1970). Beste estudio bat egin du Karmele Rotaetxe-k *Estudio estructural del euskera de Ondárroa* (Durango 1979). Holako estudioak beharrezkoak ginituzke Euskal Herri osoan. Agian bihar edo etzi.

### Fonetika eta fonologia

Estrukturalismoa sortu aintzin, Henri Gavel-ek lehenbiziko gerlaren ondoan irakurtu zuen bere bigarren tesisa *Elements de phonétique basque* (RIEV 1921) orduko linguistek agurtu zutela goraki. Zonbeit urteren buruan Larraquetek, fonetika esperimentala baliatuz, eman zuen *L'action de l'accent dans l'évolution des consonnés étudiées dans le Basque souletin* (Parise 1928) Tomás Navarro Tomás-ek agertu zituen fonetikal o lanak, bat *Pronunciación guipúzcoana* (Homenaje a Menéndez Pidal, Madric 1925), bestea *Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica* (Tercer Congreso de Estudios vascos 1923).

Baina obra sakonena ikuspegi estruktural batekin egin *Fonética histórica vasca*, Luis Mitxelena-ren tesis aberatsa da (Donostia 1961) berriz agertua 1979-an) oinarritzko obra edozein linguistarentzat. *Economie des changements phonétiques* (Berne 1955) deitu liburuan André Martinet-ek idazten du premiatsunetarik den kapitulu bat euskal linguistikarentzat: *La reconstruction structurale: les occlusives du basque*. Liburu berberean *Structures en contact: le dévoisement des sifflantes en espagnol* deritzan kapituluan eraskuten du zer influentzia ukan duen euskal fonologiak espáñolean, eta nola, emeki emeki, jende xumeen bitartez, ozenetik gogorrerat pasatu diren fonema txixtulariak espáñolez.

Xiberotarrari buruz René Lafon-ek eman dauku Larrañeko euskalkiaren sistima fonologikoa: *Contribution phonologique du parler basque de Larrau* (Homenaje a André Martinet, La Laguna 1958).

Euskaldun mintzairaren eta euskalkien estudio orokorra aurki ditaiké Nicole Moutard, André Martinet-en ikasle baten tesis-ean: *Etude phonologique sur les dialectes basques* (FLV 1975 - 1976).

Azentuaz ere egin dira ikerketak berrikitan. Lehen ikertzaileak izan ziren Azkue *Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos* (Euskera 1930 - 1931) eta Altube *El acento vasco* (Bermeo 1932). Gero etorri zen René Lafon *Observations sur la place de l'accent dans quelques formes basques de parlers souletins* (Mélanges Paul Laumonier, Parise 1935) eta geroxago Luis Mitxelena, *A propos de l'accent basque* (Bulletin de la Société de linguistique de Paris, 1957-1958),

*Acentuación alto navarra* (FLV 1976). Azkenean Basterrechea gai hortaz arizan da *Estudios sobre la entonación vasca en el habla de Guernica* (FLV 1974 eta 1975) eta Karmele Rotaetxe ere jadanik aipatu dugun bere tesisean.

### Morfologia eta sintaxiaz

Gerla aintzinean Azkueren *Morfología vasca* (Bilbao 1923) obra aberatsak eta Altuberen *Erderismos* (Bermeo 1929) liburuak argitzen dute euskal ikerkuntza.

Deklinabidea izan da bereziki aztertua. Lafonen zonbeit artikulu, Mikel Zarate-ren *Euskal Deklinabidea* (Durango 1975) eta Luis Villasante *La declinación del vasco literario común* (Oñati 1972). Hunek osatzen du estudio hori beste liburu batekin: *Palabras vascas compuestas y derivadas* (Oñati 1974).

Ez ditaikede deus erran euskal aditzaz aipatu gabe denek gai hortan maisutzat daukaten René Lafon zena. Bere *Système du verbe basque* (Bordele 1943) tesisa lan premiazkoa da ezagutarazten baitauku zer zen gure aditzaren egitura XVI garren mendean. Bere bizi guzian gai berari maiz aldiz lotu zitzaio: *Indications pour l'étude du verbe basque* (E. J. 1952), *Remarques sur les modes et les temps en basque* (E. J. 1952) *Place de la 2<sup>e</sup> personne du singulier dans la conjugaison basque* (B.S.L. 1959), *Comportement syntaxique, structure et diathèse du verbe basque* (B.S.L. 1968), *L'impératif en basque au XVI<sup>e</sup> siècle* (B. S. L. 1969). Lafonen aintzinean Baehr-ek publikatu zuen RIEV-en 1926-etik-1935 artio *Estudio sobre el verbo guipuzcoano* eta Karl Boudak, bere aldetik emaiten zuen berea *Das transitive und das intransitive verbum das Baskischen* (Amsterdam 1933) eta *Les formes respectueuses du verbe mixain* (E. J. 1948) artikulu mamit-suekin.

Ergatiboaz eta sujetaz asko mintzatzen eta idazten da azken urte hauetan. Lehenetarik aurkitzen dugu André Martinet: *La construction ergative et les structures élémentaires de l'énoncé* (Journal de Psychologie 1958) eta ere *Le sujet comme fonction linguistique et l'analyse syntaxique du basque* (B. S. L. 1962). Ergatibotasunaz ere mintzo da Chicobava... estudiantzen duela Kaukasiako hizkuntzetan. Wilbur-ek emaiten dauku lehenik *Ergative and pseudo ergative in basque* (FLB 1970) eta berrikitan *The ergative, absolutive and dative in basque* (FLV 1979) eta bertzalde Jacobsen-ek *Nominative Ergative syncretisme in basque* (A. S. J. U. 1972), Zytzar-ek eskaintzen dituela bere ideiak *Sobre el sistema ergativo del vasco* (FLV 1978) artikuluan eta Rebuschi-k *Cas et fonction du sujet en basque* (Verbum, 1978) Nancy-ko Unibertsitateko aldizkari berrian.

Gerla ondoren Ernest Lewy-k proposatu zuen *Bosquejo de una sintaxis elemental del vascuence* (BRVAP 1946 eta 1947) eta azkenik Aita Villasantek *Sintaxis de la oración compuesta* (Oñati 1976) eta ere *Estudios de sintaxis vasca* (Oñati 1978).

Generatibisten ikuspegi berri batekin Patxi Goenaga lotzen da euskal morfosintaxiari bere *Gramatika bideetan* (Donostia 1978) hala nola J. A. Mujikak eskaintzen duelarik *Perpaus bakunaren sintasia* (Bilbao 1978).

Euskararen eta beste hizkuntzen arteko lokarriak bai eta euskararen sortze edo etorkia aspaldidanik aho mihitan dabilan gaia da. Beste ikertzale batzuen ondotik Lafon-ek nahi ukan du ahaidetasun azkar bat ezarri Kaukasia-ko hizkuntza eta euskararen artean. Bereziki *Etudes basques et caucasiques*, Salamancan publikatu zuen liburuan. Ez ziren denak ados Lafonekin, are gutiago Mitxelena, Lafonen ideiez kritika bat egin baitu *L'euskaro caucasien* deitu lanean (*Le langage. Encyclopédie de la Pléiade* 1969). Ez baita hain errex aztertzea eta finkatzea zer den ahaidetasuna hizkuntzen artean behar dira irakurtu Antonio Tovar-en *El euskera y sus parientes* (Madrid 1959) eta Mitxelenaren lan batzu. Aldiz bi hizkuntza mintza ditaizke toki berean eta aztert ditaikete batek besteari eman diona, hala nola latinak euskarari. Hortaz arizan dira Julio Caro Baroja, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (Salamanca 1946) eta Luis Mitxelena estudiatzen zue-larik *El elemento latino románico* aurki ditaikena *Sobre el pasado de la lengua vasca*, jadanik aipatu dugun liburuan (Donostia 1964).

Obra orokor batzu ere agertu dira. Nahas mahas huna zoin diren premiatsuenak: Ulhenbeck, *La langue basque et la linguistique générale* (Lingua 1947), G. Lacombe, *La langue basque* (Les langues du monde); A. Tovar, *La lengua vasca* (Donostia, 1954, bigarren ager. aldian) Nils H Holmer, *El Euskara hablado* (Donostia 1964) L. Mitxelena, *La lengua vasca* (Guipúzcoa Donostia 1969) R. Lafon *La langue basque*, lehenik ingelesez Currents Trends in linguistic delakoan, gero Bulletin du Musée Basque aldizkarian frantsesez (1973). J. Allières-ek *Manuel Pratique de basque* (Paris 1979) liburuan erakusten du zer sistema daukan euskarak eta eskaintzen ditu euskal idazleen zati batzu beren frantses itzulpenekin eta behar diren gramatikazko oharrekin.

Nola ez aipa ere Lafitten Lapurtar Baxenabartar Gramatika *La grammaire basque du navarro labourdin littéraire* hain estimatua nun hirugarren aldikotz argitaratu baita aurten (1944, 1962, 1980) Gavel-enak ere ukan zuen arrakasta bainan damurik bururatu gabe utzi zuen.

Azkenean, euskara batuari buruz Txillardegik azaldu du *Euskal gramatika* on bat.

## Literatura

Euskal literaturaren kondaira guti agertu da Euskal Herrian. Azken gerla ondoren aurki ditaizke Lafitten *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* (Bayonne 1941) Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca* (Madrid 1960) eta Villasanterena *Historia de la literatura vasca* (Bilbao 1961). Añamendi editorialak azaldu ditu lau liburu gotor *Literatura* deituak, azken oraino idazleekin. Leizaolak euskal olerkiaz idatzi du Buenos Aires-eko Ekin editorialak agertu dituen zonbeit liburutan. Etxahun Barkoxeren bizitza, eta olerkiak estudiatu ditut nihaurek ene tesis doktoral-ean: *Le poète souletin Pierre Topet-Etxahun, Contribution à l'étude de la poésie populaire basque au XIX<sup>e</sup> siècle* (Bayonne 1969) eta *L'oeuvre poétique de Pierre Topet*

*Etxahun* (Bilbao 1970) azken liburu hau Etxahunen edizio kritikoa. Hor ditugu ere Patxi Altuna-ren *Versificación de Dechepare, Métrica y pronunciación* (Bilbao 1979) eta *Linguae Vasconum primitiae* -ren edizio kritikoa. (Bilbao 1980) Liburu hau sartzen da Euskaltzaindiak sortu duen Euskararen lekukoak deitu sailean. Bestalde Hordago editorialak publikatu ditu lehengo idazleen obrak «*fac simile*» moduan euskal literaturazaleentzat eta ikertzaleentzat obra baliosa baita dudarik gabe. Mitxelena-ren *Textos arcaicos vascos* -ekin erran dezakegu gure arbasoek sortu dituzten liburuak gure eskuko direla orai euskal ikerketen onetan.

Iraganari buruz egin dugun azterketa hunek zonbeit gogoeta egiterat gomitatzen gaitu.

1. Euskaltzaindiaren sortzeak, duela orai 60 urte, piztu du Euskal Herrian giro berri bat ikerketari buruz itzulia. Orroit gaiten Congreso de Estudios Vascos delakoetaz. Jadanik RIEV-en inguruan bilduak zauden iker lane-tan ari ziren Euskaldun eta atzerritar guziak. Ez ditzagun ahantz aintzin-bidari horiek.

2. Bigarren belaunaldi bat agertzen da Espainiako gerla eta 2-en gerla haundiaren ondotik. Hiru aldizkarietan biltzen dira orduan ikertzaileak: erbestuak eta atzerritarrak Baionako Eusko Jakintzan eta Hego Euskadikoak Donotiako BRSVAP eta Anuario del Seminario Julio de Urquijo delakoetan. Estructuralismoak egiten du bere sarrera Euskal Herrian.

3. Azkenean sortzen dira Unibertsitateak Euskal Herrian: Naparroan eta Bilbaon eta emeki emeki Euskal katedrak ere. Arantzazuko Euskaltzaindiaren biltzarrak 1968an, giro berri bat eta oldar azkar baten jaiotzale daukat dela. 1969 an agertzen da lehen aldikotz *Fontes Linguae Vasconum*; Euskera Euskaltzaindiaren aldizkariarekin biltzen ditu linguistikaz eginikako lanak eta atseginekin ikusten dugu RIEV-en bezala mundu zabalean diren linguistek bi aldizkari horietan publikatzen dituztela beren ikerkeren fruituak.

Euskaltzaindiak Bergaran 1978-an eta Arrasaten 1979-an egin dituen bi biltzar nagusien ondotik sortu du Gramatika batzorde bat, parte hartzen dutela Euskaltzain oso, urgazle, laguntzaile eta Unibertsitateek formatu dituzten ikertzaile berriek. Biltzar horiek euskaraz bakarrik egin dira eta ohargarri da ikustea gramatikaz agertu diren azken liburuak euskaraz idatziak direla. Horrek argi eta garbi erakusterat emaiten du euskara gai dela, beste hizkuntzak bezenbat eta beste hizkuntzekin linguistika alorrean.

## SUMMARY

Our present balance of Basque studies is grouped around the following subjects: Onomastics, Dialectology, Phonetics and Phonology, Morphology and Lexicography, Syntax and Literature. In fact, research has gone through three stages:

1. In the beginning, before Structuralism, investigators gathered around RIEV (International Review of Basque Studies), founded in 1907. Since the foundation of Euskaltzaindia in 1919, Basque Studies have been coordinated by this society.



2. After the Spanish Civil War and the II World War structuralism was introduced in the Basque Country. Research was taken up again: exiled and foreign investigators started to publish in the *Eusko Jakintza Review*, others from the Basque Peninsula began publishing in the *BRSVAP* (Bulletin of the Royal Society and Friends of the Basque Country) and in the Bulletin of the «Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo» (Department of Basque Philology «Julio de Urquijo»).

3. After 1968 Euskaltzaindia has held three meetings: in Aranzazu in 1968, in Vergara in 1978, and in Mondragón in 1979. Investigators are stimulated by the latest linguistic theories. A Committee of investigators of Grammar is organizing investigation in Euskaltzaindia. Lately founded Universities are starting to collaborate, too. Euskara, the Basque language, is being used more and more in education and investigation.

## RESUMEN

El balance actual de los estudios vascos se agrupa en torno a diversas materias: *Lexicografía, Onomástica, Dialectología, Fonética y Fonología, Morfología y Sintaxis, Literatura*. De hecho las investigaciones han conocido tres etapas:

1. Antes del estructuralismo, los investigadores se reúnen en torno a la *RIEV* (*Revista Internacional de los Estudios Vascos*), fundada en 1907, y después es Euskaltzaindia la que, a partir de su fundación en 1919, agrupa a los estudiosos vascos.

2. Después de las guerras (la civil de España y la segunda guerra mundial) el estructuralismo hace su entrada en el País Vasco. Se reemprende la investigación: los exilados y extranjeros la inician en la revista *Eusko Jakintza*, los del País Vasco peninsular en el *BRSVAP* (*Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*) y más tarde en el *Boletín del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*.

3. A partir de 1968 Euskaltzaindia celebra tres congresos: 1968 en Aranzazu, 1978 en Vergara y 1979 en Mondragón. Las nuevas teorías lingüísticas inspiran a los investigadores. La investigación se estructura en Euskaltzaindia a través de una Comisión de Gramática. Las Universidades, recientemente creadas, empiezan también a hacer su aportación. El euskara es cada vez más empleado tanto en la enseñanza como en la investigación.

## RÉSUMÉ

Le bilan actuel de la recherche basque est groupé autour d'un certain nombre de rubriques *Lexicographie, Onomastique, Dialectologie, Phonétique et phonologie, morphologie et syntaxe, Littérature*, en fait, la recherche a connu trois étapes:

1. Avant le structuralisme, les chercheurs sont réunis autour de la *RIEV* (*Revue Internationale des Etudes Basques*), fondée en 1907 et la recherche basque se structure auprès de Euskaltzaindia, à partir de sa fondation en 1919.

2. Après les guerres (guerre civile et deuxième guerre mondiale) le structuralisme fait son entrée au Pays Basque. La recherche reprend: les exilés et les étrangers autour de *Eusko Jakintza* le Pays Basque péninsulaire autour du *BRSVAP* (*Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*) et plus tard du «*Boletín del Seminario Julio de Urquijo*».

3. Après 1968 l'Euskaltzaindia célèbre 3 congrès (1968 à Aranzazu, 1978 à Vergara, 1979 à Mondragón). Les nouvelles théories linguistiques inspirent les chercheurs. La recherche se structure à Euskaltzaindia à travers une commission de Grammaire. Les Universités, récemment créées, marquent leur apport. L'euskara est de plus en plus employé aussi bien pour l'enseignement que la recherche.